

SARAKO BILTZARRA 2021

Biltzar des écrivains du Pays Basque

URRIAREN 11, ASTELEHENA: EGUN PROFESIONALA

«EMAZTEAK ETA EUSKAL LITERATURA»

Sartzea dohain

Antolatzaileak:	Sarako Biltzarra - BILKETA sarea - Euskal Kultur Erakundea - Biblio64
Lekua:	Kiroldegia – SARA
Publikoa:	Argitaletxe, liburu denda, liburuzain, idazle, irakasle, kultur eragile, ikasle...
Hizkuntza:	Euskaraz, bat-bateko itzulpenarekin (kaskoekin)
Izen ematea (beharrezkoa):	Biblio64 – Stéphanie MEDRANO: stephanie.medrano@le64.fr

EGITARAUA

9:00 Harrera

9:15 Abiatzea – Ongi etorria, Sarako Biltzarra, EKE, Bilketaren eskutik.

9:30 « *Emakume ahotsak euskal literaturan* » mintzaldia, *Iratxe RETOLAZA GUTIERREZ*en ahotik, *literatura-kritikari eta Emagin elkarteko kide*.

Azken hamarkadan, emazte sortzaileen kopurua emendatu da euskal literaturan. Ahots eta estetika berri horien ekarpena behar bezala baloratu eta ulertzeko, euskal literaturan izan duten lekua kontuan hartzea behar-beharrezkoa da, emazte literaturari buruzko genealogia osatzeko eta literatura historiografian ahantziak izan diren dimentsioak ikusgai bilaka daitezzen.

10:30 *Mahai ingurua: gai feministen argitalpena - nork, nola, nolaz.* Danele SARRIUGARTE idazle, itzultzaile (*Angela Davis, Monique Wittig, Walter Benjamin...*) eta kazetariak animaturik:

- Katakarak argitaletxea (Iruñea)
- Susa argitaletxea, Lisipe bilduma (Zarautz)
- Elkar/Jakin argitaletxea, Eskafandra bilduma (Donostia)

11:45 Irakurketa antzeztuak: KIRIBIL konpainia

12:30 Bazkaria antolatzaileek eskainia

14:30 « *Asfaltoa zartzeko moduak* », *TXAKUR GORRIA* sormen kolektiboa eta *Peru GALBETE* – Euskal emakume sortzaileen obran oinarritutako performantza artistiko-literarioa.

15:30 *Mahai ingurua: « Euskal idazle eta emazte Ipar Euskal Herrian, zein bizipen? »*

Idazle ibilbidean emazte izateak eraginik ote? Idazten hasterako, idazterakoan, publikatzerakoan, euskal literaturaren plazan?

Hizlariak: Maialen HEGI-LUKU, Marikita TAMBOURIN, Maddi-Ane TXOPERENA eta Maddi ZUBELDIA.

Nora ARBELBIDE idazle eta liburuzainak animaturik.

